

ENJOY ENGLISH 2018

NORI ZUZENDUA: HH 4 urte, HH 5 urte eta LH osoari.

LEKUA: Ikastolan.

DATAK: Ekainaren 25etik uztailaren 20ra (2, 3 edo 4 asterako izena emateko aukera).

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 9:00-13:00.

EKINTZAK: Proiektuka egiten da lan eta ariketa mota desberdinak proposatzen dira: gela barruko jolasak, ipuin kontaktak, antzerkiak, gelaz kanpoko jolasak, ekintza bereziak, irteerak, showa...

PREZIOA: 2 aste 200€, 3 aste 285€ eta 4 aste 335€.

JANTOKIA: Jantoki zerbitzua eskainiko da. Umeak 13:30ean batu beharko dira. **Prezioa:** 2 aste 60€, 3 aste 80€ eta 4 aste 95€.

ZAINTZA: 13:30-14:30 bitartean zaintza zerbitzua eskainiko da.

8:00-9:00etara bitartean eskariaren arabera eskainiko da.

IZEN EMATEA:

Martxoaren 1etik apirilaren 30era. Buletineko galdetegia beteta.

ORDAINKETA ERA: izen ematea egin eta gero zehaztuko da.

BEGIRALEAK: Guzti hau aurrera eraman ahal izateko, Ikastolen Elkarteak baldintza bakar bat ezartzen digu, monitoreentzat familia bat aurkitzea.

Monitoreei buruzko informazioa:

- Umeekin esperientzia duten 19-25 urte inguruko unibertsitateko ikasleak dira - Ingelesak, eskoziarrak edota irlandarrak-.
- Euskal Herrira etortzeko duten arrazoia programa bera da, ez dute gaztelania ikasteko helbururik.
- Programan zehar egunero 6 ordu inguru pasatu beharko dituzte lanean, (9:00etatik 15:00etara). Ditzuten ordu librekin familiarekin adostu beharko dituzte. Egokiena zera izango litzateke: familiarekin eta bakarka egoteko aukerak uztartzea.

Familien zeregina ondorengoa izango litzateke: ostatua, janaria, arropa garbiketa eta posible izanez gero familiak egiten dituen irteeretara joateko aukera ematea. Koordinatzaile bat egongo da irakasle atzerritar hauen guztien arduradun funtzioarekin. **Horren trukean, familia honek ez luke bere seme-alabaren kurtsoa ordaindu beharko.**